

# KATU,KATU MADARIKATU

Baziren behin, bi lagun: Maddi eta Nahia. Maddi, txintxoa, polita, alaia, ausarta eta jatorra zen. Nahia, bihurria, jatorra, dibertigarria eta alaia. Biak bederatzi urte zituzten eta Iruñean bizi ziren.

Egun batean,Maddi eta Nahia baserri batera joan ziren haien gurasoekin.Txuria, handia, zaharra, harrizkoa eta animaliz betetako baserria zen.

Baserrian gauza asko egin zituzten.

Maddi, zaldiz ibili zen, Nahiak txerriei eta oiloei jatekoa eman zien, parkean ibili ziren eta gero bazkaltzeko ordua iritsi zenez, Maddiren amak, hau esan zuen:

-Neskak! Etorri bazkaltzera!

-Zer dago bazkaltzeko?-galdetu zuen Nahiak.

-Lehenengo makarroiak,gero,patata tortila eta postrerako marrubi eta txokolatzeko izozkiak!-esan zuen Nahiaren aitak.

Bazkaldu eta gero, Maddi eta Nahia margotzen hasi ziren.

Maddik adarbakar bat margotu zuen eta Nahiak katu beltz bat.

Bat-batean,Maddiren aitari, aurpegian grano gorriak ateratzen hasi zitzaizkion alergiarengatik.

Arraro samarra zen, Maddiren aitak katuei bakarrik zien alergia eta baserriko jabeak esan zien hor inguruan ez zegoela katurik.

Orduan,bi neskek,zuhaitz baten atzean hau entzun zuten:

-Miau! Miau!

Katu beltz bat atera zen eta Nahiari burura etorri zitzaion bere marrazkia.

Orduan,katua hizketan hasi zen:

-Kaixo! Ni Katu Madarikatu bat naiz.

-Zer? Nik uste nuen katuek miau, miau bakarrik egiten zekitela! -esan zuen Maddik.

-Bai,baina ni ez naiz edozein katu!-esan zuen ohiuka eta haserretuta katua.

Horregatik, katu madarikatuak bere sudurra ukitu eta desagertu egin zen.

Maddi eta Nahia katua bilatzen hasi ziren, baina,beraiek ez zekitena zen, katua ez zela desagertu baizik eta mamu bat bezala ikusezina egin zela.

Hamabost minutu pasa ondoren katua ez zen agertzen eta Maddi eta Nahia

etxera joan ziren. Maddi, Nahiaren etxean lo egiten gelditu zen eta lotara joan

aurretik telebista ikusten hasi ziren.Gero, ohera joatea erabaki zuten,baina bat-batean,telebistako aurkezleak hau esan zuen:

-Ez atera zeuen etxeetatik! Kaletik katu madarikatu bat korrika eta gaiztakeriak egiten dago eta!

Orduan, Maddi eta Nahia izutu egin ziren berri horrekin eta segituan polizia deitu zuten:

-Kaixo, gu Nahia eta Maddi gara eta katu madarikatu hori gure "laguna" da.

-Kaixo,ni polizia naiz eta oraintxe abisatuko ditut nire lankideak katuaren bila joateko. Eta beste gauza bat, emaidazue zuen mugikorraren zenbakia eta horrela, aurrkitzen baldin badugu deitu egingo dizuegu.

-633 445 123 da-esan zuen Nahiak.

-Eskerrik asko neskak!

Neskak, oso larrituta zeuden, jada, hiru egun pasa zirelako eta inorrek ez zielako deitu. Baina bat-patean... toc toc toc...ateak jo zuen.

Maddi,ausarrta zenez atea irekitzera abiatu zen eta polizia bat agertu zen:

-Kaixo, ni Mikel naiz eta katu hau zuena dela esan omen didate.

-Bai,katu hori gurea da! Horregatik, emadazu oraintxe bertan!-esan zuen Nahiak haserretuta katua hartzen zuen bitartean.

Katua oso urduri zegoenez, sukaldera joan eta esnea lurrera bota zuen.

Maddik katu madarikatu lasaitzen lagundu zuen eta gero, katua hizketan hasi zen eta berriro ere aurkeztu egin zen:

-Kaixo, ni katu madarikatu bat naiz eta ez naiz beste katuen berdina.

Ni, betidanik, I iburuen barruan bizi izan naiz.

-Zergatik?-galdetu zuen Nahiak.

-Orain dela denbora luze, beste katu batek,madarikazio bat jarri zidan.

-Ze madarikazio?-galdetu zion Maddik.

-Betirako liburuen barruan biziko nintzela eta salbatzeko, norbaitek, marrazki batean marraztu behar ninduela. Horregatik, agertu nintzen baserrian, Nahiak marraztu egin ninduelako.Eskerrik asko, Nahia!

-Zer historia tristea... Sentitzen dut hain bizitza gogorra eduki izanagatik.-esan zuen Maddik.

Azkenean,Maddi, Nahia eta katu madarikatua oso lagun onak egin ziren eta... hala bazan edo ez bazan sartu dadila katu madarikatuen plazan.